



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango



## **BERBALAGUN PRENTSA OHARRA**

Euskara Planaren barruan, euskararen erabilera handitzea da Amankomunazgoaren helburu nagusia. Helburu hori betetze aldera, ezinbestekoa da euskaraz hitz egin gura duenak solaskide euskaldunak izatea inguruan; hau da, familian, lagunartean, auzoan, kalean edo lanean euskaraz berba egiteko aukera edukitzea. Berbalagunen bitartez, hainbat esparrutan euskaraz aritzeko espazioak sortzen dira. Euskara ikasleentzat, adibidez, aukera paregabea da berbatalde batera hurbiltzea, eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko. Euskara menderatzen dutenek ere badute lekua Berbalagunen, noski, dakitena besteekin konpartitu dezaketelako.

Berbalagun elkarlanean ondutako proiektua da: AEK, Durangoko Udal Euskaltegia, Durangoko Hizkuntza Eskola eta Berbaro Elkarteak dira egitasmoaren sustatzaile nagusiak, eta Durangaldeko udalak eta Amankomunazgoa, berriz, babesleak. Esan bezala, hizkuntzaren erabileran eragina duelako, Amankomunazgoak Berbalagun egitasmoari laguntza ematen dio urtez urte. Besteak beste, ekintza osagarriak antolatzen dira horrela, berbalagunek harreman-sare euskaldunak eraikitzen jarrai dezaten.

### **Zer da BERBALAGUN?**

Euskaraz bizi nahi dutenei zuzendutako aukera da. Edonork har dezake parte: euskaldun osoak, etxean edota kalean norekin praktikatu ez dutenak, giro euskaldunean integratu nahi dutenak, ikasleak, ikasi nahiz praktikatu nahi dutenak...

Aukera zabala daukagu horretarako. Edonon, edonoiz, edonorekin... kalean, tabernan, dandan, kiroldegian, eskolan, parrandan...euskaraz LOTSA BARIK hitz egitea da.

### **Zer egiten dugu?**

Astero, ordubetez, talde batean elkartu eta eguneroko gaien inguruan berba egitea da gure helburua: kafe bat hartuz, edota taldeak erabakitako ekintza bat eginez, mingaina astintzea. Talde bakoitzean euskaldun oso bat da erreferentzia eta gidari.

Asteroko hitzordu horietaz aparte, urtean zehar Berbalagunek hainbat ekintza antolatzen ditu. Adibidez, garagardo dastaketa tailerra, Durangaldea ezagutzuz ibilbideak, aurpegi margoketa tailerra, zumba maratoia, kakorratz eta puntu tailerra, mintzodromoa...

Aurten, hainbat mintzodromo egiteko asmoa daukagu. Bat Durangalde mailakoa eta beste batzuk txikiagoak, herri mailakoak. Lehenengoa, eskualde mailakoa izango da, azaroan. Mintzodromoetan, DBH eta Batxilergoko ikasleei ere parte hartzeko gonbita luzatuko zaie; esan beharrik ez dago, gainontzeko herritarrak ere parte hartzera gonbidatuta daudela.

Ekintza osagarrietan mundu guztiak du parte hartzeko aukera, baldintza bakarra euskaraz aritzea da.

Horren guztiaren berri, Durangaldeko berbalagunek daukan facebooken eta blogean ikus dezakezu.

## **Zergatik BERBALAGUN?**

Gure herriko hizkuntza ikasi eta normaltasunez erabiltzea posible egiten dugulako, inolako kosturik eta esfortzu handirik suposatu gabe. Giro alai eta naturala ziurtatuta dago. Gainera, ez dago ordutegi arazorik, zeuk erabakitzen duzu noiz eta nola.

## **Nola eman da Berbalagunen bilakaera?**

15 urte dira dagoeneko proiektu hau martxan dagoena eta urte hauetan egonkortuz joan da. Azken urteetan 30 talde ingurutan batu izan dira berbalagunek izan ohi dituen 200 bat partaideak.

Berbalagunek, hasiera-hasieratik izan du lekuko erakundeen babesak. Durangaldeko udalak eta Amankomunazgoa dira Berbalagun egitasmoaren babesle nagusiak. Beraien laguntzarik gabe proiektu hau aurrera ateratzea ezinezkoa litzateke. Horri esker da proiektu hau **DEBALDEKOA** herritarrentzat.

## **Non eta nola eman izena?**

Interesatuta bazaude EMAN IZENA:

- euskaltegietan (AEK, Udal euskaltegia, Hizkuntza eskola),
- Berbaro elkartean
- Udaleko euskara zerbitzuan
- Kultur-etxean
- [durangaldea@aek.org](mailto:durangaldea@aek.org) helbidean edota 639400786 telefonora deituz nahiz watsapa/mezua bidaliz.